

BARRIKETA LARTXO «ECCLESIAN»

Pedro Ontoso jaunak ez dauku pakean izten. Euskalerriko Eleiza aitzakitzat artuta, or darabilgu aspaldion nondik nora bere ezpata zorrotzaz min egin nairik. Non eta «Ecclesia» aldizkarian! Ez arritu, euskaldunok zapaltzeko medio guztiak onartuak dira. Orixe izan da ta izaugo be españatar guztien jokabide maltzurra. Bai ezker, erdiko ta eskumatarrena. Ez da gau barteko oiua: «Oba España gorria, España zatituta baiño».

Non ta «Ecclesian» bertan diardu Pedro Ontosok gure Elizaren izen ona zikintzen. Azken baten, Eleizaren ta Euskadiren kalterako. Edonoren berbak ta deklarazioak onartuko ditu gure erriaren kontra badatoz. Ez dogu makala olako azpijokuan. Abenduaren 13an, Maria Cruz Minaren esames antzeko deklarazioak dakaz: «Euskadiko arazoak nazionalismo gogor batetik datoz»; «abertzaletasun itsu ori erlijio itsutasunean oinarritzen da»; «karlistak Jaungoikua defenditzen eben, nazionalistak, ostera, Euskadi ta beronen independentzia»; «gaurko eleiz-gizonek ez dira karlistak, PNV ta HBkoak baino, erlijio pentsamolde itsubatetatik nazionalismo itsu ta gogor batetara aldatu dira Kontzilio Vatikanoko II eraginez, burrukaren mamia ez da aldatu azalez baino»; «Euskadiko arazoak EHU gizartera croanez konpondu leikez, orain arteko Unibertsitateak (Deustu ta Iruñakoa) erlijio kutsuz nastauta agertu izan jakuz ta ez dira izan gauza».

Atzo goizekoa ez nazanez, Maria Cruz Minaren eritxiak ez nabe ustekabeen arrapatzen. Andik eta emendik, makina bidez,

entzun izan ditut olako musika ustelak. Frankoren garaian ta orain be bardin. Andre dona au gure EHU doktoresea ei dogu. Ez dakit nongo ta noizko merituekin lortu izan dauan gure EHU irakaslea izatera. Deklarazio orreetan, beintzat, «ulea luzea ta zentzuna laburra» erakutsi dausku. Bere tarteko dontsuaren antzera badaki demogoji atsa zabaltzen. Berbak ederrak ta biotza faltsuak ugaritzen ari dira...

Ez gara euskaldunok, santuak ez. «Gaitzak gerade umiltzen eta pakean unitzen», inoskun Xenpelarrek. Baina berbako gizonak izan gara ta ez jaku bat ere atsegin gauza bat esan ta bestea egitea! Orainsu arte noiz ikusi da gure artean, ez bakarrik berbaz, baita izenpetutako akordioak be jaten? Ori bada gaurko «progresu barria», akabauta gagoz. «Esan bai, bai danean: ez, ez danean», ikasi genduanoi, ez jaku bururatzan olako euskaldunik izan leikenik be! «Gizonari berbatik ta idiari adarretatik», «gainerakoa gaiztoarengandik dator» (Mt 5, 31).

Ebanjelioa ta bortizkeri itsua, noiztik saku baten sartuta? Ez da Nazaretarren irakaspena: «begia begi ordain, agina agin ordain», bai oster, beste au: «maite zuen arerioak, egizue otoitz aurrean zarabillezanan alde» (Mt 5, 38.44) Kristauen mistika ez da iñoren lepoa moztutea, norberaren bizitza iñoren alde emotea baino. Kristau mistika ori ezin dau ikusi be marxismo-leninismoaz edo nazismo-fazismoaz kutsaturik dagonak. Makina bat napartar ta españatar, Ebanjelioa aitzakitza artuta, ibili ziran Euskadin zear, sinistu eziziezko triskantzak egiten.

Gure eleiz-gizonak, PNV edo HBn sartuta ei dagoz. Ez dakit zenbat izango diran baina españatarren alderdietan dagozane-kin konparatuz, oso gitxi. Andra dona orrek ez dauko Naparrura begiratzea baino. Arbeloa ta Urralburu jauntxoak ez dira, ez PNV ez HBkoak.

Izango dira PNV ta HB begi onez ikusten dabezan eleiz-gizonak. Ez, orraitio, Maria Cruz Minak esandako arrazoiagaitik, «agonian ta preso dagoan erriak bialduta» baino. Ez dira brome-tako bertsoak gure etxanotarrarenak:

«Zeinek ez daki gure erri au
aspaldi zelan gabiltzan;
goitik makilla eta samatik
katigu txakurren gisan.
Gure erri au salbatzen gatoz,
naiz kondenatuak izan;
ta politikan sartzen geranik,
inok ez daiala esan.
Erri onentzat beingo z leku bat
eskatzen dogu Eleizan».

Kristau sinismena, erri baten erraietan murgilduta, ageri da ta ez lañotan. «Verbum caro factum est». Baliteke jokabide batzutan, Jaungoikua ta Eleizea ta sakramentuak ta otoitza nabari agertzea. Gosez ilten aurkitzen dan batentzat, gauzarik premiñazkoena, ogia da (Mc 6, 30-44) Erreiñuko balioak, errigintzen be, parte artzea eskatzen dabe. Or ez da agortuten gure sinismena baina ori barik be ez da. Orrek ez dau esan gura, pobreak ta marginatuak ta erri zapalduak, Jaungoikua ta sakramentuak ta otoitzik bear ez dabarik. Guztiok gara pertsonak ta Jaungoikuaz famili bat izatera deituak. Gauza bat da «primum in intentione» ta beste bat «primum in executione».

Betor EHU gure erriko arazoak konpontzera, naizta orain arteko bere ekintzetan ejenplu ederra emon ez. Zelako eztabaida ta istilluak Erretore barriaren auteskundeetan!!! «Nola ikusten dozu senidearen begiko lasto izpia eta zeure begiko aga nabaritzen ez», inosku Nazaretatrak.

Tamalgarría, benetan, Pedro Ontosoren azpijokoa «Ecclesia» aldizkarian. Beste españatar aldizkari ta egunkarian antzera, ez bakarrik gure Elizaren izen ona, baita Euskadirena be ondartzen darabilgu. Gure Elizeak ez dauko beste inongo Elizaren enbidirik. Españatarrena ez, beintzat. Naiko arro sentitzen gara gure eleiz-gizon ta eleiztarrekin. Orra or Aitzol, Arizmendiarteta, J. Antonio Agirre, Ajuriagerra, Hipolito Larrakoetxea, Lauaxeta, Lizardi, Alberto Onaindia, Joxe Migel Barandiaran. Ma-

nuel Lekuona. Kostauko jake españatarrei gure gizonen orpoetaraino eltzea. Badogu Eleiz jator bat «bizi sentitzen injustiziaren arantza».

A. Olea



ESTUDIO
FOTOGRAFICO
ARGAZKARI

*Ezkontzak - Argazki gaiak saldu - Argazki-aldaketak
Lauki-ertz ipinketa - VIDEO - Plastifikatzeak
Fotokopiak (Txikitzeak)*

San Miguel kalean, 14 Trañabarren-Bloque, 1-4-13
Urrut: 673 0509 **Matiena - Abadiano**
AMOREBIETA